

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Alkatearen eskuduntzak eskuordetzea

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua-ren 44 -1 eta 2 eta 47. artikuluetan ezarritakoa betez, alkatea bere eginkizunak betetzeko egongo ez denez gero.

Alkate-lehendakari honek hau ebazten du:

Lehenengoa. Alkatearen eskuduntza guztiak Iñigo Pinedo Vadillo lehen alkateordeari eskuordetzea, 2023ko urtarrilaren 19tik 20ra, biak barne.

Bigarrena. Horren berri ematea udalbatzari egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Hirugarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Arespalditza, 2023ko urtarrilaren 18a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA